Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko abenduaren 13a, osteguna — 239 — Jueves, a 13 de diciembre de 2018

AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA — 4 — ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA

## EUSKO JAURLARITZA

### LAN ETA JUSTIZIA SAILA

**Lan eta Gizarte Segurantzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza**

*EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkariarena, Trafiko eta Aparkamenduaren Antolamenduaren (T.A.O) hitzarmen kolektiboaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (20001755011995 kodea).*

AURREKARIAK

*Lehenengoa.* 2018ko azaroaren 5ean enpresako zuzendaritzak eta enpresa batzordeak iek sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboa.

*Bigarrena.* 2018ko azaroaren 8an aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

*Hirugarrena.* Urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 8. artikuluak aurreikusitako errekerimendua burutu (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta 2018ko azaroaren 27an bete da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenengoa.* Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritza honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 15.1.h artikulua (2017-04-21eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzkoak.

*Bigarrena.* Sinatutako akordioak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

*Lehenengoa.* Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

*Bigarrena.* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2018ko azaroaren 29a.—Ramón Lertxundi Aranguena, lurralde ordezkaria. (7946)

## GOBIERNO VASCO

### DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA

**Delegación Territorial de Trabajo y Seguridad Social de Gipuzkoa**

*RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del convenio colectivo de Aparcamiento y Ordenanza del Tráfico (O.T.A.) (código 20001755011995).*

ANTECEDENTES

*Primero.* El día 5 de noviembre de 2018 se suscribió el convenio citado por la dirección de empresa y el comité de empresa.

*Segundo.* El día 8 de noviembre de 2018 se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

*Tercero.* Se ha efectuado el requerimiento previsto en el art. 8 del Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011), y se ha cumplimentado el 27 noviembre de 2018.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.* La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 15.1.h del Decreto 84/2017, de 11 de abril (*Boletín Oficial del País Vasco* de 21-04-2017) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Justicia, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

*Segundo.* El acuerdo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

*Primero.* Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

*Segundo.* Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 29 de noviembre de 2018.—El delegado territorial, Ramón Lertxundi Aranguena. (7946)

EK\CV GAO-I-2018-07946

*Trafiko eta Aparkamenduaren Antolamenduaren (TAO) Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboa.*

I. KAPITULUA

BALDINTZA OROKORRAK

*1. artikulua. Lurralde, langileria eta funtzio eremua.*

Hitzarmen honetako xedapenak Gipuzkoako lurralde osoan aplikatuko dira.

Hitzarmen honetako xedapenen menpe geratuko dira trafikoa eta bere ordutegia eta herri bideetako aparkamendu mugatua arautu eta kontrolatzeko xedea duten enpresak. Era berean, hitzarmen honen menpean geratuko dira aipatutako enpresekin lan-harremanez loturik dauden langileak ere.

*2. artikulua. Iraupena eta indarraldia.*

Hitzarmen honek 6 urteko indarraldia izango du, hau da, 2015eko urtarrilaren 1etik 2020. urteko abenduaren 31ra arte.

Hitzarmen Kolektibo hau, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara ematen den egunetik aurrera jarriko da indarrean, Baldintza Ekonomikoei dagokienean izan ezik, horiek 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina izango baitute.

Honako Hitzarmen Kolektibo hau automatikoki salatuta geratuko da iraungitzen denean, hitzarmen berria sartu arte bere eduki osoa indarrean egongo delarik.

*3. artikulua. Osotasunari lotzea.*

Itundutako baldintzek batasun organiko eta zatiezina osatzen dute eta, praktikan aplikatzearen ondorioetarako oso-osorik hartuko dira kontuan urteko zenbaketa egiterakoan.

Lan Agintaritzak hitzarmen honetan barnebildutako itunen bat ez badu onartzen, hitzarmena eraginkortasunik gabe geratuko da, berriro bere osotasunean aztertu beharko delarik.

*4. artikulua. Zurgapena eta Konpentsazioa.*

Hitzarmen honetan ezarritako ordainsariek hitzarmena indarrean sartzen den unean dauden guztiak zurgatuko dituzte, hauen izaera edo jatorria edozein izanik ere.

Era berean, aplikazio orokorreko legezko xedapenen bitartez sor daitezkeen ordainsarien gehikuntzek honako hitzarmen honetan itundutako baldintzak bakarrik ukitu ahal izango dituzte, ordainsari berriek urteko zenbaketaren arabera hartuta, hemen itundutakoak gainditzen dituztenean. Hala ez bada, azken hauek konpentsatu eta zurgatuko dituzte eta hitzarmen hau bere horretan geratuko da kontzeptu, modulu eta ordainsariak inola ere aldatu gabe.

*5. artikulua. «Ad personam» garantia eta eskuratutako eskubideak.*

Eskuarki urteko zenbaketa gainditu dezaten eta hitzarmen hau indarrean sartzen denean ezarrita dauden pertsonalki itundutako baldintzak errespetatuko dira.

*6. artikulua. Batzorde Parekidea.*

Hitzarmen hau interpretatu, aplikatu eta zaintzeko orduan eta haren jarraipena egiteko orduan gerta daitezkeen desadostasunak erabaki ahal izateko Batzorde Parekidea eratu da, Enpresako hiru ordezkariz eta sindikatu sinatzaile bakoitzeko ordezkari banaz osatua. Bi alderdiak egoki irizten duten aholkulariekin bertaratu ahal izango dira.

*Convenio Colectivo Provincial de Gipuzkoa para la Actividad de Aparcamiento y Ordenanza de Tráfico (OTA).*

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo. 1.º Ámbito de aplicación territorial, funcional y personal.*

Las disposiciones del presente convenio regirán y serán de aplicación en la Provincia de Gipuzkoa.

Quedan sometidas a las disposiciones del presente convenio colectivo, las empresas dedicadas al servicio de regulación y control horario de tráfico y estacionamiento limitado de superficie en vías públicas y al servicio de retirada de vehículos. Quedan igualmente sometidos al presente convenio los trabajadores/as vinculados laboralmente a las mencionadas empresas.

*Artículo 2.º Duración y vigencia.*

La duración de este Convenio Colectivo será de 6 años, y se extenderá del 1 de enero de 2015, hasta el 31 de diciembre del año 2020.

El presente Convenio Colectivo entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, excepto las condiciones económicas, que se retrotraerán al día 1 de enero de 2015.

El presente Convenio Colectivo quedará denunciado automáticamente a su vencimiento, manteniendo la vigencia de todo su contenido hasta la entrada en vigor del nuevo convenio.

*Artículo* 3.º Vinculación a la totalidad.

Las condiciones pactadas forman un todo orgánico e indivisible y, a efectos de su aplicación práctica, serán consideradas globalmente en cómputo anual.

En el supuesto de que la Autoridad Laboral no aprobara alguno de los pactos contenidos en el presente convenio, este quedará sin eficacia práctica, debiendo ser reconsiderado en su totalidad.

*Artículo 4.º Absorción y compensación.*

Las retribuciones establecidas en este convenio compensarán y absorberán todas las existentes en el momento de su entrada en vigor, cualquiera que sea la naturaleza o el origen de las mismas.

Los aumentos de retribuciones que puedan producirse en el futuro por disposiciones legales de general aplicación, sólo podrán afectar a las condiciones pactadas en el presente convenio cuando, consideradas las nuevas retribuciones en cómputo anual, sean superiores a las aquí pactadas. En caso contrario, serán absorbidas o compensadas por estas últimas, subsistiendo el presente convenio en sus propios términos y sin modificación alguna en sus conceptos, módulos y retribuciones.

*Artículo 5.º Garantías «ad personam» y derechos adquiridos.*

Se respetarán las condiciones superiores pactadas a título personal que estén establecidas al entrar en vigor el presente convenio, y que, con carácter global, excedan del mismo en cómputo anual.

*Artículo 6.º Comisión paritaria.*

Con objeto de resolver aquellas cuestiones que pudieran referirse a la interpretación, aplicación, vigilancia y seguimiento del presente convenio, queda constituida una Comisión Paritaria, compuesta por tres representantes de la parte empresarial y un representante por cada uno de los sindicatos firmantes. Las partes podrán asistir con los asesores que estimen oportunos.

Batzordeak hamabost eguneko epea izango du, deialdi arruntean, aurkezten zaizkion zalantzak erabakitzeko eta, ezohikoetan, berriz, hiru eguneko epea planteamendua jasotzen duenetik edo deialdia egiten denetik kontatzen hasita.

Jakinarazpenak jasotzeko helbidea honako hau izango da (ASESGAn):

Resurrección María de Azkue kalea 6 - 3.º 20018 Donostia.

*7. artikulua. Legeria osagarria.*

Hitzarmen honetan aurreikusi ez diren gai guztietan, indarrean dagoen lan legeria aplikatuko da eta, bereziki, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea, Langileen Estatutuaren Testu Bateratua; baita ibilgailuen herri bideetako aparkamendu mugatua ordutegien bidez eta Aparkamendu-ordenantzen bidez arautu eta kontrolatzeko xedez estatu mailan indarrean dagoen II. hitzarmen kolektibo orokorra ere.

II. KAPITULUA

SARRERA ETA KONTRATAZIO BALDINTZAK

*8. artikulua. Langileak enpresan sartzea.*

Langileak kontratatzerakoan, lanari eta enpleguari buruz unean-unean indarrean dauden legezko arau orokor guztiak beteko dira eta enpresak, legez aurreikusita dagoen lan-kontraturen bat egiteko konpromisoa hartzen du bere gain, kontratu bakoitzaren xedearekin bat etorriko den moduan, betiere.

Langile berrien, finkoen nahiz aldi baterakoen, altak eta bajak izaten direnean, Langileen ordezkariei langile berriaren izena, deitura, kategoria eta kontratu-motaren berri emateko konpromisoa hartzen du Enpresak. Hori, hilero-hilero gauzatuko da. Langileari lan kontratuaren kopia emango zaio.

*9. artikulua. Azterketa medikoa.*

Enpresak, langile bat bere zerbitzura hartu aurretik bidezko azterketa medikoak egin behar ditu, baina langile berari urte berean azterketa bera ez egiten saiatuz.

Enpresak, langile guztiei urtero, beren lanpostuari dagokion azterketa medikoa egin behar die derrigorrez. Azterketaren emaitza langile bakoitzari emango zaio. Dokumentazio hori guztiz pribatua eta isilpekoa izan dadin konpromisoa hartzen du enpresak.

Urtez urteko azterketa horiek lan-jardunaldiaren barruan gauzatuko dira eta, langilea aske egongo da egin ala ez erabakitzeko. Dena den, azterketa ez egitea erabakitzen badu eta enpresak hala eskatzen badio, azterketari uko egin izana sinatu beharko du langileak. Hirugarren pertsonentzako izan dezaketen arriskua dela-eta, gidaritza-lanak burutzen dituzten langileek ezinbestez egin beharko dituzte, hau da, ez zaie aipatu hautazkotasuna aplikatuko.

*10. artikulua. Enpresaren titularitate-aldaketak eta zerbitzuen subrogazioa.*

Enpleguaren egonkortasun printzipioa bultzatu eta bermatu dadin, honako hitzarmen honetan ezartzen diren baldintzetan burutuko dira edonolako kontratu bidez gertatzen diren langilezurgapenak.

«Kontrata» hitzak, edonolako kontratazio mota, publikoa zein pribatua, hartzen du oro har bere baitan; eta, aldi berean, enpresa, sozietate, erakunde publiko eta edozein entitate edo pertsona fisikok hein batean edo guztiz garatzen duen zerbitzua edo jarduera identifikatzen du, jardule hori juridikoki edonola eratua dagoela ere.

Kontrata bat amaitzen, galtzen, eteten, lagatzen edota uzten den bakoitzean, hala nola, jarduera jakin bat burutzen duen entitateak, pertsona fisikoak edota juridikoak bere egitura edo modalitatea aldatzen duen bakoitzean, sozietate adjudikaziodun

La Comisión deberá resolver los asuntos que le sean planteados en el plazo de quince días en convocatoria ordinaria, y en las extraordinarias, en el término de tres días desde la recepción del planteamiento y/o convocatoria.

A efectos de notificaciones, el domicilio de recepción de las mismas será en ASESGA:

C/Resurrección M.º de Azcue, 6- 3.ª 20018 San Sebastián.

*Artículo 7.º Legislación supletoria.*

Para todo lo no previsto en este convenio, le será de aplicación la legislación laboral vigente y en especial el Real decreto Legislativo 2/2015 de 23 de octubre, texto refundido del Estatuto de los Trabajadores y el convenio colectivo general de ámbito nacional para el sector de Regulación del Estacionamiento Limitado de Vehículos en la Vía Pública, mediante control horario y cumplimiento de las Ordenanzas de Aparcamiento.

CAPÍTULO II

CONDICIONES DE INGRESO Y CONTRATACIÓN

*Artículo 8.º Ingreso del personal.*

La contratación de trabajadores se ajustará a normas legales generales existentes sobre colocación y empleo, vigentes en cada momento, comprometiéndose la empresa a la utilización de los distintos modelos de contratación laboral previstos en la ley, de acuerdo con la finalidad de cada uno de los contratos.

Cuando existan altas y bajas de nuevos trabajadores, fijos o eventuales, las empresas se comprometen a comunicar a los representantes de los trabajadores el nombre, apellidos y categoría así como el tipo de contrato de trabajo. Esto se llevará a efecto con una periodicidad mensual. Al trabajador se le entregará copia del contrato de trabajo.

*Artículo 9.º Reconocimiento médico.*

Las empresas vendrán obligadas a realizar reconocimientos médicos previos a la admisión de los trabajadores a su servicio, evitando la repetición de estos reconocimientos a un mismo trabajador en un mismo año.

Las empresas, facilitarán un reconocimiento médico (anual), adecuado al puesto de trabajo, a cada uno de sus trabajadores, entregando el resultado de los mismos a cada trabajador, comprometiéndose a que dicha documentación tenga carácter reservado y sea totalmente privada.

Los reconocimientos periódicos anuales se realizarán dentro de la jornada laboral del trabajador, siendo de libre aceptación para el trabajador, si bien, a requerimiento de la empresa, deberá firmar la no aceptación cuando no desee someterse a dichos reconocimientos. Esta voluntariedad no será de aplicación a los trabajadores que desempeñen funciones de conductor, debido a los riesgos que para terceros llevan implícitos estos trabajos.

*Artículo 10.º Cambio de titularidad de la empresa y subrogación de los servicios.*

Al objeto de contribuir y garantizar el principio de estabilidad en el empleo, la absorción del personal entre quienes se sucedan, mediante cualquier modalidad contractual, se llevará a efecto en los términos indicados en el presente convenio.

El término «contrata» engloba con carácter genérico cualquier modalidad de contratación, tanto pública como privada, e identifica un concreto servicio o actividad parcial o total que pasa a ser desempeñada por una determinada empresa, sociedad, Organismo Público u otro tipo de entidad o persona física, sea cualquiera la forma jurídica que adopten.

En todos aquellos supuestos de finalización, pérdida, rescisión, cesión, rescate o reversión de una contrata, así como respecto de cualquier otra figura o modalidad que suponga la sustitución entre entidades, personas físicas o jurídicas que llevan


EK\CV GAO-I-2018-07946

berria edo zerbitzua bere gain hartzen duen entitatea zerbitzu horietara atxikitako langileen kontratuak subrogatzera behartuta egongo da, horien kontratazio-modalitatea edozein izanik ere. Sozietate edo entitate berriak, indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa betetzera behartua dago eta langileen eskubide ekonomiko eta laboral guztiak errespetatu beharko ditu, horien legezko ordezkariak espreski onartuz.

III. KAPITULUA

LAN-BALDINTZAK

*11. artikulua. Lan-jardunaldia.*

Hitzarmen honen indarraldirako lan-jarduna lan eraginkorreko asteko berrogei ordutan ezarri da, lan eraginkor gisa harturik langileak bere lanpostuan eta jardunean aritzea.

Asteko jardunaldiaren banaketa honako hau izango da:

— Astelehenetik igandera, TAOko langileentzat.

— Astelehenetik igandera, garabiko langileentzat.

Urteko lanaldia 1.731 ordukoa izango da.

2019. urtetik aurrera, urteko lanaldia 1.722 ordukoa izango da.

Edonola ere, langile bakoitzaren kontratuko berezitasunak errespetatuko dira.

Jardunaldi eraginkorra langile bakoitzak egin beharko du lantoki bakoitzean ezarri diren ordutegi-banaketekin ados eta indarreko legerian ezarritako mugen barruan.

Lantokira ordutegiarekiko 45 minutu edo gehiagoko atzerapenaz azaltzen den langilea ez da lanera sartuko (jardunaldi-erdi horretan), bertaratu gabetzat hartuko da eta, ondorioz, lan-jardunaldi erdi hori galduko du.

Lan-jardunaldia, une orotan, zerbitzuaren beharrei eta bertan egon daitezkeen aldaketen menpe egongo da, Enpresen eta Udalen artean sinatutako hitzarmenen arabera.

Etengabeko jardunaldian, langileek hogei minutuko atsedena izango dute eta denbora hori lan eraginkortzat hartuko da.

Asteko ordutegiaren metaketaz sortzen diren jardunaldi gehiegiak metatu ahal izango dira oporraldiaz aparte gehienez 14 egun natural osatu arte. Hori, dena den, oporraldien programa egiteko momentuan eskatu beharko da, lanbide kategoria eta lantoki bakoitzeko langileen % 10eko muga gainditu gabe.

Urtarrileko lan-egutegia abenduaren 15ean eman beharko da. Egutegi hori eskuetan dutela, hurrengo hamar egunetan langileek hil horretako egun libreak eskatu ahal izango dituzte, 12. artikuluan xedaturikoaren arabera, baina artikulu horretan jartzen duen hilabete lehenago egin behar horrek ez du indarrik izango (12. artikulua: Atseden data aldatzea).

*12. artikulua. Atseden data aldatzea.*

Langileak, lantoki bereko kategoria bereko langileen arteko atseden datak aldatu ahal izango ditu baldin eta zirkunstantzia hori langile biek idatziz ipini eta 48 ordu lehenago enpresari hala eskatzen bazaio. Delako egun horretarako aldaketa bakar bat onartuko da, langile bakoitzak urtean gehienez ere 8 aldaketa eskatu ahal izango dituelarik.

Langileak urtean gehienez 3 atseden-egun soilik alda ditzake, delako eguna baino hilabete lehenago jakinarazten badu, eta horrek ez dio urteko jardunaldian inolako murrizketarik ekarriko. Kasu honetan ere ezin izango da lanbide kategoria eta lantoki bakoitzeko langileen % 5eko muga gainditu.

a cabo la actividad de que se trata, la nueva sociedad adjudicataria o la entidad que se haga cargo estará obligada a subrogarse en los contratos de los trabajadores/as adscritos a estos servicios, cualquiera que sea la modalidad de contratación de los mismos, respetando todos los derechos económicos y laborales de los trabajadores, cumpliendo el convenio colectivo en vigor y reconociendo expresamente a los representantes legales de los mismos.

CAPÍTULO III

CONDICIONES DE TRABAJO

*Artículo 11.º Jornada de trabajo.*

La jornada laboral durante la vigencia del presente convenio queda establecida en 40 horas semanales de trabajo efectivo, entendiéndose como trabajo efectivo la presencia del trabajador en su puesto de trabajo y dedicado al mismo.

La distribución de la jornada semanal será:

— De lunes a domingo para el personal de O.T.A.

— De lunes a domingo para el personal de Grúa.

La jornada laboral en cómputo anual será de 1.731 horas.

A partir del año 2019 la jornada anual será de 1.722 horas.

En todo caso se respetarán las particularidades contractuales de cada trabajador.

La jornada efectiva deberá ser realizada por cada trabajador de conformidad con las fórmulas de reparto horario existentes en cada centro de trabajo, y dentro de los límites establecidos en la legislación vigente.

El trabajador que se presente en el puesto de trabajo con 45 minutos o más de retraso sobre su horario, no entrará a trabajar (en esa mitad de jornada), considerándose como falta de asistencia y perdiendo en tal caso la media jornada de trabajo.

La jornada de trabajo estará supeditada en todo momento a las necesidades del servicio y a los cambios que en él puedan producirse, en función de los contratos suscritos entre las empresas y los Excmos. Ayuntamientos.

En jornada continua, los trabajadores tendrán derecho a un descanso de veinte minutos, que se considerará como tiempo efectivo de trabajo.

Los excesos de jornada por acumulación de horario semanal, se podrán unir hasta un máximo de 14 días naturales fuera del periodo vacacional, siendo solicitados en el momento de la confección del programa de vacaciones, con el límite máximo establecido del 10 % de los trabajadores de una misma categoría laboral y centro de trabajo.

El calendario laboral del mes de enero se entregará el día 15 de diciembre. Entregado el mismo, los trabajadores podrán solicitar los días de libranza para dicho mes, dentro de los diez días siguientes, de acuerdo a lo establecido en el Artículo 12, cambio de fecha de descanso, no operando el requisito del mes de antelación en el propuesto.

*Artículo 12.º Cambio de fecha de descanso.*

El trabajador podrá realizar cambios de las fechas de descanso, entre los trabajadores de la misma categoría del centro de trabajo, siempre y cuando se solicite a la empresa por ambos trabajadores y por escrito con una antelación mínima de 48 horas. Solo se admitirá un cambio de descanso para el día en cuestión y un máximo de 8 cambios al año por trabajador.

Con una antelación de un mes a su disfrute, el trabajador podrá elegir hasta un máximo anual de 3 días de cambio de fecha de descanso con la empresa, sin que signifique reducción alguna de la jornada anual, con el límite máximo establecido del 5 % de los trabajadores de una misma categoría laboral y centro de trabajo.

EK\CV GAO-I-2018-07946

Abenduaren 1 baino lehen hautatu ez diren atseden egunak enpresak berak programatuko ditu eta langileak ezin izango ditu atseden egun horiek aldatu.

*13. artikulua. Oporrak.*

Honako hitzarmen honek ukitutako langile guztiek, ordaindutako 31 egun naturaleko oporraldirako edota enpresan daramaten denboraren arabera dagokien zati proportzionala jasotzeko eskubidea izango dute.

Oporren ordainsariak langile batek laneko hilabete normal batean jasotzen dituen kontzeptu ekonomiko guztiak bilduko ditu.

Oporrak gozatzeko epealdi ofiziala, urte natural bakoitzaren ekainetik iraila bitartekoa izango da, biak barne direla. Lau hilabete horien barruan langile bakoitzaren oporraldi datak ezarrita daudenean, hurrengo urteetarako txanda errotatiboak egingo dira.

Aldez aurretik idatziz jakinarazten badu, langileak epealdi ofizial horretatik kanpo bere opor guztiak edo zatiren bat, aldi batean edo bi hamabostalditan, gozatu ahal izango ditu, baldin eta kontrata bakoitzeko langileen gehienez ere % 10a badago egoera horretan.

Baldin eta, oporrez gozatzeko eguna heltzean, langilea baja medikoan badago, alta jaso arte itxarongo da oporretarako data berriak finkatzeko; data berria enpresako opor-egun ofizialetatik apartekoa izan beharko da, eta langileak horretarako aukera izango du, behin bere ezintasuna gaindituta, betiere hamazortzi hilabete baino gehiago pasa ez badira oporrak zehaztu diren urtearen amaieratik.

Langilea ospitaleratu egin behar bada, ospitaleratzeak irauten duen bitartean oporraldia etenda geratuko da, baldin eta hurrengo 48 ordutan gorabehera hori enpresari behar bezala jakinarazten bazaio. Langile horri hartzeko geratzen zaion oporraldia urte natural horretan bertan hartu beharko du, noiz hartu enpresarekin batera erabakita.

Langileek kategoria eta lantoki bereko lankideekin trukatu ahal izango dituzte dagozkien oporraldiak; horretarako, aldez aurretik idatzizko akordioa beharko dute, eta hau, enpresari aurkeztu beharko zaio oporraldi ofiziala hasteko data baino, hots, ekaina baino bi hilabete lehenago.

Oporraldia ekainean hartzeko asmoa duten langileek, gehienez ere 360 euroko alokairu-aurrerakina eskatu ahal izango dute uztaileko aparteko haborokinaren kontura eta, zenbateko hori, ekaineko nominan ordainduko zaie.

Lan eta oporraldien egutegia urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen egin beharko da, horren berri berehala langileei emango zaielarik.

*14. artikulua. Lizentziak eta baimenak.*

Langileak, hori jakinarazi eta justifikatu ondoren, ordainsarirako eskubidea izanik, lanera joateari utzi ahal izango dio, honako arrazoiengatik eta denboraldi hauetan:

a) Hamabost egun natural ezkontzen bada.

b) Hiru egun natural seme-alaba jaiotze kasuetan.

c) Hiru egun natural honako kasuetan (irauten duten bitartean): Gaixotasun larria, arreta pertsonala behar duten senideen ospitaleratzea, edo hauen heriotzagatik, kidetasun eta odolkidetasuneko bigarren gradura arte. Horretarako langileak probintziatik kanpoko joan-etorririk egin behar badu, bost egun naturaleraino zabalduko da baimena.

d) Zerbitzu medikoetara bertaratzeko beharrezkoa den denboragatik. Halakoetan, sendagileak edo osasun-erakundearen egiaztagiria ekarri beharko da, eta, bertan, langilea zein ordutan sartu den eta zein ordutan atera den ere jarri beharko du, derrigor.

Los días de descanso no elegidos antes del 1 de diciembre serán programados por la empresa no pudiendo el trabajador/a modificar estos descansos.

*Artículo 13.º Vacaciones.*

Todo el personal afecto al presente convenio disfrutará de 31 días naturales de vacaciones retribuidas, o la parte proporcional que le corresponda en función del tiempo de permanencia en la empresa.

La retribución de las vacaciones comprenderá todos los conceptos económicos que percibe el trabajador durante un mes normal de trabajo.

El periodo oficial de disfrute de vacaciones será durante los meses de junio a septiembre de cada año natural, ambos inclusive. Una vez establecidas dentro de estos cuatro meses las fechas de disfrute de vacaciones de cada trabajador, se crearán turnos rotativos para los sucesivos años.

El trabajador, previa solicitud por escrito, podrá disfrutar de una sola vez o en dos periodos quincenales, la totalidad o parte de sus vacaciones fuera de este periodo oficial, siempre que no coincidan más del 10 % de trabajadores de cada centro de trabajo.

En el supuesto de que llegada la fecha del disfrute de las vacaciones, el trabajador se encontrase en situación de baja médica, se esperará a que le den el alta médica para determinar nuevas fechas de vacaciones, que se fijarán en todo caso fuera del periodo oficial de vacaciones de la empresa, el trabajador podrá hacerlo una vez finalice su incapacidad y siempre que no hayan transcurrido más de dieciocho meses a partir del final del año en que se hayan originado.

Se interrumpirán las vacaciones en caso de hospitalización y mientras dure ésta, siempre que se comunique de manera fehaciente a las empresas esta situación dentro de las 48 horas siguientes a la misma. El periodo que quedase por disfrutar se hará dentro del año natural, fijándose el periodo de conformidad con las empresas.

Los trabajadores podrán permutar con compañeros de su misma categoría y centro de trabajo los periodos de vacaciones que les correspondan, previo acuerdo entre ellos, por escrito, que se trasladará a las Empresas con al menos dos meses de antelación al mes de junio, fecha de inicio del periodo vacacional.

Aquellos trabajadores que vayan a disfrutar de su período vacacional en el mes de junio, podrán solicitar un anticipo salarial con cargo a la paga extraordinaria de Verano de un importe máximo de 360 €, que se abonará en la nómina del mes de junio.

Antes del 31 de diciembre de cada año, deberá estar aprobado el calendario laboral y el de vacaciones, poniéndose en conocimiento de los trabajadores de forma inmediata.

*Artículo 14.º Licencias y permisos.*

El trabajador/a, previo aviso y justificación, podrá ausentarse del trabajo, con derecho a remuneración por alguno de los motivos y por el tiempo siguiente:

a) Quince días naturales en caso de matrimonio.

b) Tres días naturales en los casos de nacimiento de hijo,

c) Tres días naturales mientras dure, por enfermedad grave, hospitalización que precise atención personal o fallecimiento de familiares hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad. Cuando por tales motivos el trabajador/a precise realizar un desplazamiento fuera de su provincia, se ampliará a cinco días naturales.

d) Por el tiempo indispensable para la asistencia a los servicios médicos, justificando dicha asistencia, con la hora de entrada y salida de la visita al médico, que deberá figurar obligatoriamente en el justificante emitido por el facultativo u organismo sanitario correspondiente.

EK\CV GAO-I-2018-07946

e) Ohiko helbidea aldatzeagatik, egun natural bat.

f) Izaera publiko eta pertsonaleko derrigorrezko zeregin bat betetzeko, beharrezko duen denbora.

g) Langileek bederatzi hilabetetik beherako seme-alaba edoskitzeagatik, eguneko lanean ordubeteko atsedenaldia izango dute, bi zatitan banatu ahal izango dutelarik. Langileek, hala nahi izanik, eskubide honen ordez, lan-jardunaldi normala ordu-erdiz murriztea aukeratu ahal izango dute helburu berberako. Guraso biek lan egiten duten kasuan, aita edo amak, edozeinek gozatu ahal izango du baimen hori.

Ezkondu gabeko bikote egonkorren udal-erregistroan gutxienez 8 hilabete daramatenek, eskubide berdinak izango dituzte, ezkontzarena ezik.

h) 2018. urtetik aurrera, hiru egun libre egongo dira, eta horiek ezin izango dira opor-egunekin batera hartu, ezta zubietan edo jaiegunekin batera eskatu ere. Gutxienez 72 ordu lehenago eskatu beharko dira; eta kategoria eta lantoki bereko bi langilek ezingo dute egun bera eskatu.

i) Aurreko urtean gaixotasun arruntaren ondoriozko bajarik edo justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiterik izan ez duten langileek erabilera libreko bi egun izango dituzte, h) idatz-zatian jasotako egun libreei dagozkien muga berberekin. Egun horiek baliatzeko eskubidea langileak aurreko urtean enpresan emandako zerbitzuaren proportzioan aitortuko zaio.

j) Langileak kontu pertsonalen bat badu, baimen bat hartu ahal izango du urtean, gehienez 15 egun naturalekoa, ordainsaririk jasotzeko eskubiderik gabe. Ordainsaririk gabeko baimen hau urtean behin soilik eskatu ahalko da, gutxienez hamabost egun lehenago.

k) Egun bat, bigarren mailara bitarteko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasuneko ahaide bat ezkontzen bada.

l) Seme-alabei eta/edo gurasoei laguntzeko baimena, urtean 9 ordu; 4 ordu eta erdiko bi zatitan banatu ahal izango da.

*15. artikulua. Haurdunaldietako mediku-azterketak.*

Enpresaburuari aurretiaz jakinarazten badiote, eta lan-orduetan egin beharra arrazoitzen badute, haurdunaldian dauden langileek lanetik haurdunaldietako mediku-azterketetara eta erditzerako prestakuntza-saioetarako joateko eskubidea izango dute, lansaria galdu gabe.

*16. artikulua. Eszedentziak.*

Langileen Estatutuko 46. artikuluaren azaldutako guztiaz gain, adosten da:

Enpresan gutxienez bi urteko antzinatasuna duen langileak, indarreko legeriarekin bat, borondatezko eszedentzia eskatu ahal izango du, gutxienez 3 hilabetekoa eta gehienez ere bi urtekoa, lanpostua erreserbatuta.

Eszedentzia eman ahal izateko, lantoki bakoitzeko plantillaren ehuneko bostetik gorako langileek ezin izango dute eszedentzia aldi berean hartu.

Langileak ezin izango du beste eszedentzia bat eskatu aurrekoa amaitu eta gutxienez hiru urte igaro ez badira.

Lanera itzultzeko eskaera, eszedentzia amaitu baino gutxienez hilabeteko aurretiaz zuzendu beharko zaio Enpresako Zuzendaritzari, idatziz eta era frogagarrian, lantoki berean automatikoki berriro sartu ahal izango delarik.

Eszedentzia epea bete ondoren, aurreikusitako datan langilea ez bada bere lanpostura itzultzen, borondatezko baja emango du enpresan.

*17. artikulua. Balioaniztasun funtzionala.*

Enpresako kategorien baitan, balioaniztasun funtzionala ezarri da.

e) Un día natural por traslado de domicilio habitual.

f) Por el tiempo indispensable para el cumplimiento de un deber inexcusable de carácter público y personal.

g) El trabajador, por lactancia de un hijo menor de nueve meses, tendrá derecho a una hora de descanso en su trabajo diario, que podrá dividir en dos fracciones. El trabajador, por su voluntad, podrá sustituir este derecho por una reducción de la jornada laboral normal de media hora con la misma finalidad. Este permiso podrá ser disfrutado indistintamente por el padre o la madre en el caso de que ambos trabajen.

Las parejas de hecho que lleven inscritos al menos 8 meses en el registro habilitado para ello, tendrán los mismos derechos exceptuando el permiso por matrimonio.

h) Se dispondrá de tres días libres, a partir del año 2018 que no se podrán juntar a las vacaciones, ni se podrán solicitar en puentes ni junto a festivos. Se deberán solicitar con al menos 72 horas y no podrán disfrutarlo simultáneamente dos trabajadores en el mismo día de la misma categoría y centro de trabajo.

i) Dos días de libre disposición que solo podrán disfrutar aquellos trabajadores que no hayan causado baja por enfermedad común en el año anterior o ausencias injustificadas, con las mismas limitaciones que los días libres del Apartado h. El derecho a su disfrute estará sujeto a la proporcionalidad de prestación de servicio del trabajador en la empresa el año anterior.

j) Los trabajadores podrán disponer, para atender algún asunto personal, de un único plazo de hasta un máximo de quince días naturales al año sin derecho a retribución. Este permiso no retribuido se podrá solicitar una única vez al año con una antelación mínima de quince días.

k) Un día por boda de un familiar hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.

l) Permiso por acompañamiento de hijos y/o padres de 9 horas anuales, pudiéndose fraccionar en 2 periodos de 4 horas y media.

*Artículo 15.º Examenes prenatales.*

Las trabajadoras embarazadas tendrán derecho a ausentarse del trabajo, con derecho a remuneración, para la realización de exámenes prenatales y técnicas de preparación del parto, previo aviso al empresario y justificación de la necesidad de su realización dentro de la jornada de trabajo.

*Artículo 16.º Excedencias.*

Con independencia de lo expuesto en el artículo 46 del estatuto de los trabajadores, se acuerda:

El trabajador con una antigüedad mínima en la empresa de dos años podrá solicitar, de conformidad con la legislación vigente, una Excedencia Voluntaria por un plazo no inferior a 3 meses, ni superior a dos años con reserva de puesto.

A efectos de la concesión de la excedencia voluntaria, no podrán disfrutar de la misma y a la vez más del 5 % de la plantilla vigente de cada centro de trabajo.

El trabajador no podrá solicitar una nueva excedencia hasta no haber transcurrido al menos tres años desde la finalización de la anterior.

La petición de reingreso, deberá solicitarse al menos con un mes de antelación a la finalización de la misma y siempre por escrito, de forma fehaciente, dirigida a la Dirección de la empresa, siendo su reincorporación automática en el mismo centro de trabajo.

Transcurrido el período de excedencia, en el caso de no reincorporación al puesto de trabajo en la fecha prevista, el trabajador/a causará baja en la empresa con carácter voluntario.

*Artículo 17.º Polivalencia funcional.*

Se establece la polivalencia funcional dentro de las diversas categorías de la empresa.

IV. KAPITULUA

BALDINTZA EKONOMIKOAK

*18. artikulua. Oinarrizko alokairua.*

Hitzarmen honek ukitutako langileen oinarrizko alokairua erantsitako alokairu-taulan maila eta kategoria bakoitzerako ezarritakoa da.

*19. artikulua. Antzinatasuna.*

Hitzarmen honen eremuan bildutako langileek, aldizkako gehikuntza jasoko dute antzinatasun osagarri gisa, honako eskala honen arabera:

— 2 urte egin ondoren: % 5.

— 4 urte egin ondoren: % 10.

— 9 urte egin ondoren: % 20.

— 14 urte egin ondoren: % 25.

— 16 urte egin ondoren: % 30.

— 21 urte egin ondoren: % 40.

— 25 urte egin ondoren: % 50.

— 30 urte egin ondoren: % 60.

Antzinatasuna zenbatzeko hasierako data langilea enpresan sartu zen eguna izango da.

Antzinatasun portzentaia oinarrizko alokairuaren arabera kalkulatuko da eta iraungitzen den hurrengo hilaren lehenengo egunetik hasita jasoko da.

*20. artikulua. Kalitate plusa.*

Kalitate plus bat ezarri da hitzarmen honek afektatutako langileentzat gaineratutako alokairu taulan ezarritako kopuruz, etekin normal eta egokiz lan egindako egun bakoitzaren ondorioz sortuko dena.

*21. artikulua. Gauekotasun plusa.*

Gauekotasun plusa ezarri da gaueko hamarretatik goizeko seiak bitartean lanean jarduten duten langileentzako. Plus hori Oinarrizko Alokairuaren % 25a izango da eta benetan lan egindako egun bakoitzeko edota efektiboki lan egindako denboraren proportzioan ordainduko da.

*22. artikulua. Diru-bilketa plusa.*

Aldizka diru-bilketa funtzioak betetzen dituzten langileek, euren zereginen barruan horrelakorik aipatu gabe, diru-bilketa plusa jasoko dute, hilean 47,88 euro edota efektiboki lan egindako denboraren proportzioan ordainduko zaiena.

Konbenio hau indarrean dagoen gainerako urteetan, igoera lansari-taulako berbera izango da.

*23. artikulua. Alokairuz kanpoko plusa.*

Garraioak eta distantziak sortutako gastuei aurre egiteko, alokairuz kanpoko plus bat ezarri da erantsitako taulan adierazten den zenbatekoaz.

Aipatutako plusa urtean lan egindako 247 egunetarako ordainduko da, oporraldia barne dela, eraginkorki lan egindako asteko jarduna edozein izanik.

*24. artikulua. Gabon eguna eta Urtezahar eguna.*

Abenduaren 24an eta 31n gaueko txandan diharduten langileek eta abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean diharduteneko eguneko 42,39 € gehiago jasoko dute, edo zati proportzionala.

Konbenio hau indarrean dagoen gainerako urteetan, igoera lansari-taulako berbera izango da.

CAPÍTULO IV

CONDICIONES ECONÓMICAS

*Artículo 18.º Salario base.*

El salario base del personal afectado por este convenio es el que se especifica para cada nivel y categoría en tabla salarial anexa.

*Artículo 19.º Antigüedad.*

Los trabajadores comprendidos en el ámbito de este convenio, percibirán como complemento personal de antigüedad, un aumento periódico de acuerdo con la siguiente escala:

— A los 2 años cumplidos: 5 %.

— A los 4 años cumplidos: 10 %.

— A los 9 años cumplidos: 20 %.

— A los 14 años cumplidos: 25 %.

— A los 16 años cumplidos: 30 %.

— A los 21 años cumplidos: 40 %.

— A los 25 años cumplidos: 50 %.

— A los 30 años cumplidos: 60 %.

La fecha inicial del cómputo de antigüedad, será la del ingreso del trabajador/a en la empresa.

El porcentaje de antigüedad se calculará sobre el salario base y se percibirá a partir del primer día del mes siguiente al de su vencimiento.

*Artículo 20.º Plus de calidad.*

Se establece un plus de calidad para el personal afecto por el presente convenio, en la cuantía señalada en la tabla salarial anexa, que se devengará por día efectivamente trabajado con un rendimiento normal y correcto.

*Artículo 21.º Plus de nocturnidad.*

Se establece un plus de nocturnidad para todo el personal que realice su jornada entre las 22.00 h. y las 06.00 h. del día siguiente, consistente en un 25 % del salario base, abonándose por día efectivamente trabajado o la parte proporcional del mismo en función de las horas realizadas.

*Artículo 22.º Plus de recaudación.*

Los trabajadores que realicen funciones de recaudación de forma no permanente y que no lo tengan así contemplado dentro de sus funciones, devengarán un plus de recaudación en la cuantía mensual de 47,88 € o la parte proporcional del mismo en función del tiempo efectivamente trabajado.

Para el resto de los años de vigencia de este convenio, tendrá el mismo incremento que la tabla salarial.

*Artículo 23.º Plus extrasalarial.*

Para suplir los gastos ocasionados por el transporte y la distancia, se establece un plus de carácter extrasalarial por la cuantía que se indica en la tabla salarial anexa.

Dicho plus será satisfecho para 247 días anuales efectivos de trabajo, entre los que se incluye el periodo vacacional, con independencia de la jornada semanal efectivamente trabajada.

*Artículo 24.º Nochebuena y Nochevieja.*

Para el personal que preste servicio en turno de noche los días 24 y 31 de diciembre, y los días 25 de diciembre y 1 de enero percibirán la cantidad de 42,39 € por jornada o parte proporcional de la misma.

Para el resto de los años de vigencia de este convenio, tendrá el mismo incremento que la tabla salarial.

EK\CV GAO-I-2018-07946

*25. artikulua. Aparteko pagak.*

Aparteko hiru paga ezarri dira, Udakoa, Gabonetakoa eta Martxokoa, honako baldintza hauen arabera ordainduko direnak:

Bakoitza, oinarrizko alokairua gehi antzinatasunari dagozkion 30 eguneko proportzioan ordainduko da.

Haborokin horien sortzapen epeak honako hauek izango dira:

— Udako paga: urtarrilaren 1etik ekainaren 30era.

— Gaboneko paga: uztailaren 1etik abenduaren 31ra.

— Martxoko paga: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Pagak honako data hauetan ordainduko dira:

— Udako paga: uztailaren 15ean.

— Gaboneko paga: abenduaren 15ean.

— Martxoko paga: Sortzapenaren hurrengo urteko martxoaren 15ean.

Aparteko pagak egunetik egunera sortuko dira eta justifikatu gabeko ausentziek eta LEI egoerako bajaldiek ez dute sortuko.

V. KAPITULUA

GIZARTE HOBEKUNTZAK

*26. artikulua. LEI egoeragatiko osagarriak.*

Laneko istriputik edo lanbide gaixotasunagatik eratorritako Lanerako Ezintasun Iragankorraren kasuetan, langileak Gizarte Segurtasunaren prestazioaren eta bajaldian lanean egon balitz bezala jasoko lukeen alokairu gordinaren arteko diferentzia eskuratuko du, Aparteko Orduak salbuesten direla.

Lanekoa ez den istriputik edo gaixotasun arruntetik eratorritako Lanerako Ezintasun Iragankorraren kasuetan, aurreko lerroaldiko irizpide bera aplikatuko da, bajako 6. egunetik aurrera.

Ospitaleratze kasuetan eta horrek irauten duen bitartean, irizpide bera aplikatuko da lehenengo egunetik aurrera.

*27. artikulua. Istripu Poliza.*

Enpresak konpromisoa hartzen du aseguru-etxe batekin langileentzako poliza bat izenpetzeko. Poliza horrek 25.000 euroko kalte-ordaina bermatuko du, ezintasun iraunkor osoa, absolutua, balioezintasun handia edo heriotza eragin dituen lan-istripuren bat gertatuz gero.

Hitzarmena sinatzen den egunetik hilabetera izenpetuko dira polizak, gehienez.

*28. artikulua. Laguntza Juridikoa.*

Lanean sortutako intzidentzien ondorioz, langilearen aurka edozein ekintza judizial burutzen bada, langilea auzi-jartzailea edo hartzailea dela ere, enpresak abokatu-laguntza eman beharko dio sortzen diren gastuak bere gain hartuz.

Langilea, lan-kontuengatik, atseden-orduetan edo oporretan epaitegira edo polizia-etxera joan beharrean gertatzen bada (non eta ez den bere kabuz joan), ordain modura, han egoten den denbora-tarte berbera emango zaio atsedenerako edo oporretarako. Horretarako, aurretiaz, dena delako aginteak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko du.

*29. artikulua. Lanerako arropa.*

Enpresan sartzeko unean eta urte-sasoiaren arabera, derrigorrez erabili beharreko lanerako arropa hauek eskuratuko dituzte langileek:

*Artículo 25.º Pagas extraordinarias.*

Se establecen tres Pagas Extraordinarias que tendrán la denominación de Verano, Navidad y marzo, que se ajustarán a las siguientes condiciones:

La cuantía de cada una de ellas será de 30 días de salario base más antigüedad.

El período de devengo de las pagas será el siguiente:

— Paga de Verano: del 1 de enero al 30 de junio.

— Paga de Navidad: del 1 de julio al 31 de diciembre.

— Paga de marzo: del 1 de enero al 31 de diciembre.

Las fechas de abono de las pagas serán las siguientes:

— Paga de Verano: el 15 de julio.

— Paga de Navidad: el 15 de diciembre.

— Paga de marzo: el 15 de marzo del año siguiente al de su devengo.

Las pagas extraordinarias se devengarán día a día, no devengándose en las ausencias injustificadas, ni durante el tiempo de baja por incapacidad temporal, con excepción de los procesos I.T. derivados de accidente de trabajo.

CAPÍTULO V

MEJORAS SOCIALES

*Artículo 26.º Complementos por I.T.*

En los casos de baja por I.T. derivadas de accidente de trabajo o de enfermedad profesional, el trabajador percibirá la diferencia entre la prestación de la Seguridad Social y el salario bruto que le hubiera correspondido en el período de baja, como si hubiera estado en activo, con exclusión de las horas extraordinarias.

En los casos de baja por I.T. derivadas de enfermedad común o accidente no laboral, se aplicará el mismo criterio que el párrafo anterior, a partir del 6.º día de la baja.

En los casos de hospitalización y mientras dure esta, se aplicará el mismo criterio desde el primer día.

*Artículo 27.º Póliza de accidentes.*

La empresa se compromete a suscribir con una entidad aseguradora una póliza a favor de todos los trabajadores que garantice 25.000 € de indemnización por accidente laboral con resultado de incapacidad permanente total, absoluta, gran invalidez o fallecimiento.

Las pólizas se concertaran en el plazo máximo de un mes desde la firma del convenio.

*Artículo 28.º Asistencia jurídica.*

En el supuesto de que se lleve a cabo algún tipo de actuación judicial contra cualquier trabajador, bien sea en calidad de demandante o demandado, como consecuencia de incidencias derivadas del trabajo, la empresa estará obligada a facilitarles asistencia letrada, haciéndose cargo de los gastos que ello origine.

